

I. ERANSKINA
ADINGABEAREN BABES JURIDIKOARI BURUZKO URTARRILAREN 15EKO 1/1996 LEGE ORGANIKOAK 13.5
ARTIKULUAN EZARRITAKOA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA SEXU-
DELITUGILEEN ERREGISTRO ZENTRALAREN ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO BAIMENA

1.- DATU PERTSONALAK

IFZ / AIZ / PASAPORTEA

JAIOTZEGUNA

2.- ADIERAZPENA ETA BAIMENA

Behean sinatzen duenak adierazten du ez dutela kondenatu epai irmo baten bidez espetxe-zigorrekin Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak –Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea hein batean aldatzen dituenak– 13.5 artikuluan aipatzen dituen sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

Baimena ematen dut, beharrezko datu-baseak kontsultatzeko bere izenean 1/1996 Lege Organikoak 13.5 artikuluan aipatzen duen ziurtagiria eskatzeko, adingabeekiko ohiko harremanak izatea eskatzen duten zerbitzuak ematen ari den bitartean edo jarduera hori hasten duenean.

Ez dut baimena ematen

Baimena ematen ez badu, Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko du, Zuzendaritzak ziurtagiri hori eskatu ahalko baitu langilea bere mendeko zentro publikoetan adingabeekin ohiko harremanak izatea eskatzen duten zerbitzuak ematen ari den bitartean.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n.

Sinadura

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, jakinarazten dizugu agiri/inprimaki hau betez eta honekin batera aurkeztutako agiriaren bidez eman dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla, dagokien tratamendua izan dezaten. Era berean jakinarazten dizugu datu horien bilketa eta tratamenduaren xedea Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoak 13.5 artikuluan ezarririkoa betearaztea dela.

Lege Organiko horretan aurreikusitakoaren arabera, datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahalko dituzu, langile-arloan eskumena duen organora idatzi bat bidalita.